

GURUTZETAKO UNIBERTSITATE OSPITALEAN INSTALATUTAKO AZKEN BELAUNALDIKO OTA-RI ESKER, DIAGNOSTIKOAK, EMAITZAK ETA PAZIENTEAREN SEGURTASUNA HOBEAK IZANGO DIRA

Goi-teknologiako gailu honen erosketa Eusko Jaurlaritzak abian jarritako Osakidetzaren berrikuntza teknologikoaren estrategiaren barruan kokatzen da.

Iñigo Urkullu Eusko Jaurlaritzako lehendakaria Ezkerraldea-Enkarterri-Cruces ESlaren Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Erradiodiagnostiko Zerbitzuan izan da, Jon Darpón Osasuneko sailburuarekin eta M^a Jesús Múgica Osakidetzako zuzendari nagusiarekin batera. Bertan, unitate berri horrek eskuratu berri duen OTA ekipamendua ikusi dute.

Hona hemen lehendakariaren hitzak: «**Jaurlaritzak 720.000 euroko inbertsioa egin du azken belaunaldiko OTA hau eskuratzeko. Horrela, aurrera egiten jarraituko dugu Euskal Osasun Zerbitzuan abangoardiako teknologia izateko bidean**».

Zehazkiago, lehendakariak Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Erradiodiagnostiko Zerbitzura egindako bisitan ikusi ahal izan duen moduan, **ekipamendu berri honek teknologia aurreratua erabiltzen ditu, eta, horrela, hobetu egiten dira diagnostikoaren kalitatea, pazientearen segurtasuna eta erosotasuna probak iraun bitartean. Esate baterako, zarata elektronikoa % 44 murrizten duen irudi-kate bat du. Horri esker, kalitate handiko 3D irudiak lortzen dira, eta erradiazio dosiak eta erabili beharreko kontrastea % 80ra bitarte gutxitu daiteke zenbait miaketatan.**

Segundoko 55 irudiko abiadura du irudiak hartzeko, eta hori oso garrantzitsua da organoen mugimenduek eragindako akatsak saihesteko, batik bat umeen kasuan eta arnas aparatuaren miaketetan. Lehendakariak honela azaldu du: **«Gailu berri honen bidez posible da toraxeko OTA bat 2 segundo eskasetan egitea. Bihotzeko probak egiteko, 5 taupada baino ez dira behar, eta, horri esker, ez da beharrezkoa izaten pazienteari sedazioa ematea. Ondorioz, proba erosoagoa eta seguruagoa da».**

Instalatu berri hau kontuan hartuta, hiru dira orain Gurutzetako Unibertsitate Ospitale Erradiodiagnostiko Zerbitzuan dauden OTA gailuak. **Urtean 49.000 miaketa egiten dira makina horiekin.**

Punta-puntako ekipamendu erosi berri hau oso lagungarria izango zaie medikuei patologia ugariren diagnostikoa egiteko: miaketa kardiakoak eta baskularrak, garuneko eta beste atal batzuetako perfusioak. **Hiru dimentsioko irudiak sortzen ditu, eta prozesamendu ondoko sistema sofistikatu batek aukera ematen du irudien analisi aurreratuak egiteko. Horrela, errazagoa da patologia kardiakoa, onkologikoa, baskularra eta iktusa duten pazienteen plangintza kirurgikoa egitea.**

Laburbilduz, instalatu den ordenagailu bidezko tomografia axialeko ekipamendu berria punta-puntako sistema teknologiko bat da, eta bikaintasun klinikora bideratuta dago, profesionalei diagnostiko hobeak egiten lagunduko baitie.

Era berean, **pazientearen gogobetetasuna eta zainketak hobetzen lagunduko du.** Izan ere, ekipamenduaren sistema automatizatuek, aurreko belaunaldiko makinekin alderatuta, probaren fluxu eraginkorragoa egiteko aukera ematen dute, eta, horrela, profesionalek denbora gehiago izango dute proban pazienteari arreta eskaintzeko.

Osakidetzak, teknologia berritzeko indarrean duen planaren bidez, hiru lurralde historikoetako ESI guztietan aurrera jarraitzen du urratsez urrats eta plangintzaren arabera, eta horrela betetzen ari da Eusko Jaurlaritzak zehaztutako helburua, hau da, Euskadiko zerbitzu publikoak hobetzea.

EL NUEVO TAC DE ÚLTIMA GENERACIÓN INSTALADO EN EL HOSPITAL UNIVERSITARIO CRUCES MEJORARÁ LA CALIDAD DEL DIAGNÓSTICO, LOS RESULTADOS Y LA SEGURIDAD DEL PACIENTE

La nueva adquisición de alta tecnología se enmarca en la estrategia de renovación tecnológica de Osakidetza que está llevando a cabo el Gobierno Vasco.

El Lehendakari del Gobierno Vasco Iñigo Urkullu junto con el Consejero de Salud, Jon Darpón, y la Directora General de Osakidetza, M^a Jesús Múgica, han visitado el Servicio de Radiodiagnóstico del Hospital Universitario Cruces de la OSI Ezkerraldea Enkarterri Cruces y el nuevo TAC adquirido por Osakidetza.

Tal y como ha señalado el Lehendakari en su intervención **“el Gobierno Vasco ha invertido 720.000 euros en este TAC de última generación para seguir avanzando en la dotación de tecnología de vanguardia del Servicio Vasco de Salud”**.

En concreto, tal y como ha podido comprobar el Lehendakari durante su visita al Servicio de Radiodiagnóstico del Hospital Universitario Cruces, **esta nueva generación de equipos incorpora tecnologías avanzadas que mejoran la calidad diagnóstica, la seguridad del paciente y su confort durante la prueba. Por ejemplo, cuenta con una cadena de imagen que permite reducir el ruido electrónico en un 44%, proporcionando imágenes en 3D de alta calidad, y reducir la dosis de radiación y la utilización de contraste en ciertas exploraciones en hasta un 80%.**

Su velocidad, reconstruye hasta 55 imágenes por segundo y es muy importante al evitar fallos por movimiento de órganos, sobre todo en niños y en estudios respiratorios. Tal y como ha destacado en su intervención el Lehendakari **“este nuevo aparato es capaz de realizar un TAC de tórax en tan sólo 2 segundos. También realiza pruebas cardiacas en sólo 5 latidos por lo que se pueden evitar sedaciones a los y las pacientes, y es más cómodo y seguro”**.

Con el instalado ahora, el servicio de Radiodiagnóstico del Hospital Universitario Cruces cuenta con 3 TAC, que **realizan 49.000 exploraciones al año**.

Este nuevo equipo de última generación representa un gran paso en la ayuda médica para el diagnóstico de un buen número de patologías: estudios cardiacos, vasculares, perfusiones cerebrales y de otras localizaciones. **Genera imágenes en 3D, y un sofisticado sistema de postprocesado permite realizar análisis avanzados de las imágenes, contribuyendo a la planificación quirúrgica en pacientes con patología cardiaca, oncológica, vascular e ictus, fundamentalmente.**

En definitiva, el nuevo equipo de Tomografía Axial Computarizada instalado es un sistema con tecnología de última generación, orientado a la excelencia clínica para poder ayudar a los y las profesionales en la realización de un mejor diagnóstico.

Igualmente, **contribuye a mejorar la satisfacción y cuidado del paciente** humanizando la prueba de TAC mediante sistemas automatizados, que ayudan y facilitan un flujo de prueba más eficaz comparado con la generación anterior, proporcionando así a los profesionales más tiempo para la atención del paciente durante la misma.

Osakidetza a través de su plan de renovación tecnológica continúa avanzando paulatinamente y planificadamente en todas las OSI de los 3 Territorios Históricos, cumpliendo así el objetivo del Gobierno Vasco de mejora de los servicios públicos en Euskadi.